


17 BLOGAK

- o—102 **17.1 ZER DA BLOG BAT?**
 - 17.1.1 Ehusfera
- o—103 **17.2 ESKAERAK ETA KONFIGURAZIOA**
 - 17.2.1 Konfigurazioa
- o—103 **17.3 EDUKIAK**
 - 17.3.1 Aldizkakotasuna
 - 17.3.2 Estilo jarraibideak
 - 17.3.3 Zabalkundea
 - 17.3.4 Hizkuntza erabilerak
 - 17.3.5 Hizkuntzaren erabilera ez sexistak
 - 17.3.6 Edukiak
- o—105 **17.4 IRUZKINEN KUDEAKETA**

BLOGAK

<https://www.ehu.eus/ehusfera/>



The screenshot shows the header of the ehufesera website. It features a navigation menu with links for 'Condiciones de uso', 'Ayuda', 'Índice', 'Solicitud de alta', 'eu', 'es', and 'en'. The main content area is titled 'Bienvenidos y bienvenidas a ehufesera' and includes a welcome message, a project description, and a list of 'Ultimas Entradas' (latest entries) and 'Blogs más activos' (most active blogs).

Bienvenidos y bienvenidas a ehufesera

ehufesera es la blogosfera de la UPV/EHU que alberga los weblogs elaborados por el profesorado y el personal de administración y servicios de nuestra universidad.

El proyecto ehufesera nace con la idea de impulsar la participación de la comunidad universitaria en la divulgación y difusión del conocimiento y generar un diálogo en relación a los temas abordados. Por favor, consulta las condiciones de uso.

Ultimas Entradas

Master ACTP
Rotoscopia
 Algunos artistas qe trabajan con la técnica de animación de la rotoscopia: Jeff Scher - Tunnel Vision - Animator Jeff Scher captures life in motion (News) - I Got My Job Through the NY ...
 Maria Andres Sanz, 16 de febrero de 2014

Ixa Group. Language Technology.
Talk: Multilingual Mention Detection for Coreference Resolution (O. Uryupina, ...
 Speaker: Olga Uryupina University of Trento Data: February 21th 2014, Friday
 Time: 12:00 Room: 3.2 computer Science Faculty (UPV/EHU) Title: Multilingual Mention Detection for Coreference ...
 Kepa Sarasola, 17 de febrero de 2014

Blogs más activos

- ▶ **UPV/EHU Biblioteka**
Guztia zure zerbitzura | Todo a tu servicio
- ▶ **Master ACTP**
Master del Departamento de Arte y Tecnología
- ▶ **ZINEMA**
Noticias sobre cine - zinemari buruzko berriak - cinema news
- ▶ **kulturbasque**
kultur agenda eta unibertsitateko sare kulturaleko proiektuak

17.1 Zer da blog bat?

Gaurkotasunarekin, ikastegiaren proiektuekin, ekitaldiekin eta abarrekin lotura duen informazioa zabaltzeko tresna bat da bloga. Nahiko maiz argitaratzen dira sarrerak, komunikazio lotura bat izateko irakurleekin. Horregatik, oso garrantzitsua da ongi planifikatzea blogean editatzen diren sarrerak, testu interesgarriak eta dinamikoak izan daitezen, eztabaida pitz dezaten, eta ikastegiaren, sailaren, unitatearen, markaren edo dena delakoaren jarduerarekin lotuta egon daitezen.

Bloga korporatiboa da eta ikastegiaren, sailaren, unitatearen eta abarren zerbitzura dago. Beraz, idazketa profilak korporatiboak izango dira (hau da, edukiak sortzen dituzten erabiltzaileek profil generiko batetik sortzen dituzte). Hala ere, baliteke blog batzuetan sarrerak (post) informazioa argitaratu duen pertsonaren izen-abizenekin sinatuta egotea (zerbitzuen blogak, markenak, etab.).

Amaierako asmoa blogeko sarrerek jendearen parte-hartzea sustatzea da. Beraz, idazketa lanaren ondoren, gizarte sare egokien bidez zabaltu beharko dira sarrerak. Egon daitezkeen iruzkinak kudeatzeaz ere arduratu beharko dugu.

17.1.1 Ehusfera

ehusfera UPV/EHuren blogosfera da eta, bertan, Unibertsitateko irakasleek eta administrazio eta zerbitzuetako langileek egindako weblog-ak biltzen dira.

ehusfera proiektua unibertsitateko kideek ezagutzaren zabalkuntzan eta hedapenean parte har dezaten sustatzeko eta aztertzen diren gaien inguruan elkarrizketa sorrarazteko jaioa da.

17.2 Eskaerak eta konfigurazioa

Blog batean alta emateko, beharrezko da EHUsferaren bidez eskaera egitea, dagokion formularioa beteta. Bertan, arduradunaren datuak, blogaren izena eta url-a, deskribapena, hizkuntza eta jakintza arloak adieraztea eskatzen da.

Zerbitzu teknikoko pertsona batek emango dio alta blogari, pare bat eguneko epean.

17.2.1 Konfigurazioa

Ikastegiak, sailak, unitateak edo dagokionak konfiguratu du bloga.

UPV/EHUK txantiloi estandar bat dauka blog korporatiboetarako, eta portadako argazkia aldatu egin daiteke, baita alboko zutabeetako alderdi batzuk ere (agenda, beste gizarte sare batzuekin elkartutako beste kontu batzuk, etab.).

Blogak Unibertsitatearen ikastegietako gizarte sare guztien arteko lokailu gisa funtzionatzen du; beraz, gainerako tresnek bloga osatzen dute, eta haren hedapena sustatzeko erabiltzen dira. Atzera elikatzeko funtzio hau errazteko, dagokion ikastegi, sail edo zerbitzuaren gizarte sareetara birbideratzen gaituzten widget-ak edo aplikazioak sar daitezke blogean. Era horretan, erabiltzaile gehiagorekin konektatzea eta sare zabalago bat sortzea lortuko dugu. Dena integratzea lortzea da helburua, erabiltzaileek sarean dauden sailaren profil desberdinak ezagut ditzaten, eta zein webetatik erlazionatu nahi duten aukeratu ahal izan dezaten.

17.3 Edukiak

17.3.1 Aldizkakotasuna

Gomendio orokorra astean sarrera bat edo bi argitaratzea da, erabiltzaileek beren iruzkinak egiteko behar adina denbora utziz; alde horretatik, kantitatea baino garrantzitsuagoa da kalitatea.

Halaber, kontuan hartu behar da eguneko zer ordu eta asteko zer egun diren egokienak sarrerak argitaratzeko eta zabaltzeko, dagokion bloga elikatzen duen pertsonen sarearen portaeraren arabera. Era horretan, gizarte sareen askotariko tresnen bidez sarrera ahalik eta gehien zabaltzea lortuko dugu.

17.3.2 Estilo jarraibideak

a) Egitura

Testuak sei bat paragrafo izan behar ditu gehienez (400 hitz inguru), eta paragrafoek laburrak eta zehatzak izan behar dute, bi irakurketa mailatan banatuta. Lehenengo mailan informazio nagusia laburbilduko dugu, eta bigarrean, berriz, informazio gehigarria emango dugu (sakondu eta zehetasunak eman).

b) Informazioaren antolaketa:

Izenburuak

Sarreraren edukia modu labur eta erakargarrian adierazten duten informazio tituluak emango zaie lehenetasuna, blog korporatibo baten formaltasuna galdu gabe.

II. Lehenengo irakurketa maila

Hausnartzea eragiten duten egiturak erabiltzea komeni da (galdera erretorikoak, adierazpenak, etab.).

Paragrafoek informazio gehiago emango dute, baina motzak izan behar dute: garrantzitsua da informazioa ahalik eta gehien laburtzea. Gainera, bigarren maila irakurtzen jarraitzeko gogoan pizten duen esaldi batekin bukatzea komeni da.

III. Bigarren irakurketa maila

Informazio gehigarria jasotzen da hemen; hau da, hasierako edukia zabaltzen duten zehetasunak, sarreraren ideia orokorra izateko ezinbestekoak ez direnak.

Ez da beharrezkoa amaieran ondorio bat gehitzea laburpen gisa: gogoan izan Interneteko ingurunean ari garela argitaratzen, eta ez badugu informazio garrantzitsua hasieran jartzen, erabiltzaileak orria utzi eta irakurtzeari utz diezaioke. Beste era batera esanda, laburpena edo informazio garrantzitsua lehenengo mailan jarri behar da, eta ez bigarrean. Helburua da testuaren gakoak lehenengo paragrafoetan ematea erabiltzaileari, gaia interesatzen zaion edo ez erabaki ahal izan dezan.

Garrantzitsua da testuak oinarrian dituen informazio iturriak estekatzea, irakurleak beharbada ezagutzen ez duen kontzeptu, izen berezi edo terminoren bat aipatzen denean, esteka bat egon dadin konfiantzazko iturri batera, han informazio gehiago jaso ahal izateko (UPV/EHUREN iturriak, konfiantzazko hiztegiak edo webguneak, komunikabideak, blog batzuk, etab.).

c) Irudiak

Sarrerak erakargarriagoak egiteko, irudiz hornitzea komeni da. Garrantzitsua da gure sarrerak ilustratzeko erabiliko ditugun irudien jabetza intelektualeko eskubideak ezagutzea. Gomendio orokorra da UPV/EHUREN irudi bankura edo, hala badagokio, lizentziadun argazkien beste gordailu batzuetara joatea, berrerabili ahal izateko.

Hirugarrenen argazki bat behar izanez gero, Creative Commons lizentzia duten irudiak lor ditzakegu (<http://es.creativecommons.org>) Interneteko gordailuetan. Irudi horien lizentziek egiletasun eskubideak babesten dituzte, baina hirugarrenek erabiltzeko aukera batzuk baimentzen dituzte. Lizentzia hori errespetatu beharko da, iturria aipatuz edo egileak jarritako baldintzak betez.

17.3.3 Zabalkundea

Blogean sarrera bat argitaratzen dugunean, Facebook-en eta Twitter-en zabaltzea komeni da: sarreraren izenburua adieraz dezakegu esteka gehituz, edo forma erakargarriagoak bila ditzakegu (erabiltzaileei gai jakin bati buruz galdetzea, parte hartzea animatzea, etab.). Garrantzitsua da parte-hartzea blogera bideratzea, eztabaida plataforma bakar batean zentralizatzeko.

17.3.4 Hizkuntza erabilerak

UPV/EHUn blogetan gida honen 3. kapituluari jasotako UPV/EHUn Hizkuntza Ofizialen Erabilera Irizpideak errespetatuko dira.

Sareek bi hizkuntzen kalitatea zainduko duen administratzaile elebidun bat izango dute.

17.3.5 Hizkuntzaren erabilera ez sexistak

Gida honetako 4. kapituluari biltzen diren arauak jarraituko dira, *UPV/EHUn euskararen eta irudien erabilera ez-sexistarako gidak* jasotako ildoak, hain zuzen.

17.3.6 Edukiak

Ez da komeni bloga agenda bat bihurtzerik, eta, beraz, ez dira ekitaldien deialdiak edo aurreikuspenak gehitu behar. Ekitaldi garrantzitsuen deialdiak bakarrik argitaratuko dira, betiere helburua aurretiko eztabaida bat sortzea, saiora joateko interesa piztea eta gero blogean izandako eztabaidarekin jarraitzea bada. Interesgarria izan daiteke, ordea, nolabaiteko garrantzia izan duten ekitaldien kronikak idaztea.

Blogean argitaratzen den informazioak balio erantsia izan behar du, irakurleen interesa bereganatzeko. Garrantzitsua da, halaber, blogeko gaiaren ildoak zehaztea orrietako batean, erabiltzaileak jakinaren gainean egon daitezen.

17.4 Iruzkinen kudeaketa

Komeni da argitaratu aurretik blogeko iruzkinak moderatzea. Garrantzitsua da iruzkinak argitaratzeko oinarritzko jarraibideak adieraztea blogean, erraz ikusteko moduko toki batean. Jarraibide horiek honako hauetan oinarrituta egon behar dute: egokitasuna (elkarrizketaren ildoarekin lotutako iruzkinak), errespetua (iraingarria ez den hizkera erabiltzea) eta informazio mota (pertsonen pribatutasuna eta datuak babes daitezzen errespetatzea).

Ez da komeni gure sarrerarekin helburuarekin zerikusirik ez duten webetarako estekak dituzten publizitate informazioak agertzetik. Baldintza horiek betetzen ez dituzten iruzkinak ezin dira argitaratu, baina, nahi badute, iruzkinak beste era batera jartzeko aukera emango zaie egileei.

Iruzkinetan erabiltzen den hizkuntzak gutxienezko kalitate bat duela bermatu beharko dute blogeko edizioaren arduradunek beharrezkoa bada (zuzenketa ortografikoa), UPV/EHUn blogen eredu izaera dela eta. Iruzkinen gehienez ere 24 orduko epean erantzutea komeni da.